



JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA

31671 ARIBE (Navarra) · CIF: P3175000C
Tel: 948 76 43 75
jvaezkoa@infolocal.org
valledeaezkoa@gmail.com
www.aezkoa.org

Ariben, 2020ko azaroaren 6an, arratsaldeko zortzietan, Aezkoako Batzarre Nagusiak, bilkura arrunta egin zuen, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren kideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

BERTARATUTAKOAK

Presidente jauna: Karlos Bueno Reka

Batzarrekide jaun-andereak: Eseberri Colomo, Maddi - Galarza Larrayoz, Maria Carmen - Martínez Juango, Ainhoa - Merino Iriarte, Juan Esteban - Reta Trevejo, Leire - Santomá Vicens, Gonzalo - Zabalza Barberena, Izaskun.

LEHENA.- AURREKO BILKUREN AKTAK ONETSI

Zenbait zuzenketa egin ondoren, onetsita gelditu dira Batzarre Nagusia eratzeko urriaren 24an egindako bilkuraren akta eta 2020ko urriaren 31n egindako bilkura bereziarena.

BIGARRENA.- OILAGORRA EHIZATZEKO TXARTELAK - KANPOKO EHIZTARIEN EGOERA. ORDAINDUTAKO ZENBATEKOAREN BALIZKO ITZULKETAREKIN LOTUTAKO AKORDIOAK.

Nafarroako Gobernuak Foru Komunitatearen perimetroa ixtea erabaki ondoren, oilagorrak ehizatze txartelen esleipendunetako batzuek ezin izan dute Batzarre Nagusiaren komunalean sartu ehizan aritzeko. Ildo horretan, Batzarre Nagusiak ehiza-txartelen zenbatekoaren itzultzea baloratzeko eskaerak jaso dira; izan ere, Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta Frantziako Estatuak hartutako neurriak ikusita, jardueraren debekua luze joan daiteke. Osoko Bilkurak uste du, horrenbestez, ezinbesteko baldintzak ematen direla direla dagozkien zenbatekoak itzultzeko.

Oilagorra ehizatze denboraldia urriaren 12an hasi eta 2021eko urtarrilaren 31n amaitzen denez, Osoko Bilkurak erabaki du goian aipatutako neurriek eragindako ehiztariei jakinaraztea Batzarre Nagusiari honako aukera hauetako bat eska diezaioketela:

- Txartela (eta dagokion dokumentazioa) hamabost eguneko epean itzultzea, jakinarazpena jasotzen dutenetik zenbatzen hasita. Kasu horretan, txartelaren zenbatekoa itzuliko zaie, dagokien erkidegoak/estatuak zirkulazioa murrizteko hartutako neurriren baten eraginpean egon ez diren egunak kenduta.

- Txartela 2021eko urtarrilaren 31ra arte mantentzea, debekuak kentzen diren egunetan ehizatu ahal izateko. Kasu horretan, halaber, txartelaren zenbatekoa itzuliko zaie dagokien erkidegoak edo estatuak hartutako murrizketek eragindako egunetan.

Txartelaren zenbatekoa ehizatze eskubidea ematen duen egun guztien arabera hainbanatuko da.

Jakinarazpen hori Euskal Autonomia Erkidegoan edo Lapurdin helbideratuta dauden ehiztariei igorriko zaie.

HIRUGARRENA.- BASO ENKANTEA

Batzarreburu jaunak jakinarazi du duela hilabete batzuk baso enkantea deitu zela 2020ko planean aurreikusitako bi loteak esleitzeko. Hutsik gelditu eta, zenbait egurgilek jakinarazi zuten kubikazioak ez zeudela ongi eginak eta ez zirela ateratzen egoera orrietan ageri ziren metroak. Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion, bereziki, Gibleleako lotearen kubikazioak berrikusteko, eta, era berean, eskatu zitzaion aurten 2021erako aurreikusitako loteetako bat enkantean jarri ahal izatea, pinu zuraren eskaria pagoarena baino handiagoa baita. Berrikuspenak egin ondoren, beharrezko zuzenketak bidali zaizkio Batzarre Nagusiari eta baimena jaso da pinu gorriko lotea saltzeko.

Aurrekoa ikusita, Aezkoako Batzarre Nagusiaren osoko bilkurak erabaki du Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentuak onetsitako 2020rako aprobetxamenduen urteko planari dagozkion baso loteak saltzeko enkantea iragartzea. Planaren onespena Natura Ingurunearen Zerbitzuko zuzendariak maiatzaren 12an emandako 187/2020 Ebazpenaren bidez (269/2020 Ebazpenaren bidez aldatua) egin zen. Horretaz gain, 2020ko urriaren 16an Baso eta Ehiza Zerbitzuko zuzendariak emandako 446/16 Ebazpenaren bidez onetsitako 3. lotea ere iragarriko da.

Enkantea Nafarroako Toki Araubidea eguneratzen duen urriaren 29ko 11/2004 Foru Legearen 5. xedapen gehigarrian eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean xedatutakoaren arabera izapidetuko da. Seinalamenduan sartutako loteak, balorazio ekonomikoekin batera, 2020. urteko aprobetxamendu planari dagozkionak dira, eta Gobernuak lote bakoitzerako onartutako baldintza teknikoan pleguan eta Batzarre Nagusiak onetsitako baldintza ekonomiko-administratiboan pleguan ezarritakoaren menpe daude.

Enkantean jarri beharreko loteen zerrenda honako hau da:

- 1/2020 Lotea - Alderdia: LANTEGIS ANTXOS-MUSTAKO LARREKO ERREKA. Pagoak - Azken mozketa eta bakandua. Kokapena: 149b, 150b, 154b, 153b, 151a, 152c, 152a, 155a, 161d.

1.246 pago oin ditu, 2.597 m³ egiten dutenak; horietatik: 1.197 m³ bigarren mailako zur dira, metro kubikoko 45,00 €an baloratutakoak, eta 1.399 m³ egur-zatiak dira, 15,00 €an baloratutakoak. Zurak berrogeita hamahiru mila zortziehun eta hirurogeita hamalau euro eta hamaika egiten ditu (53.874,11 €) eta egurrak, berriz, hogeita mila bederatziehun eta laurogeita hamaika euro eta berrogeita zazpi zentimo (20.991,47 €).

Loteak, guztira: 74.865,58 € (hirurogeita hamalau mila zortziehun eta hirurogeita bost euro eta berrogeita hemezortzi zentimo egiten ditu).

- 2 /2020 Lotea - Alderdia: GIBLEEA. Mozketa mistoa. Kokapena: 368a,368c, 367b, 367g, 362e, 369b eta 374a.

1.640 pago oin ditu, 4.525 m³ egiten dutenak; horietako 23 m³ kalitate goreneko zur dira, metro kubikoko 50,00 €an, mila laurogeita hemeretzi euro eta hamazortzi zentimo egiten dutenak (1.089,18€); 1.932 m³ kalitatezko zur dira, 45,00 €an/ m³ laurogeita sei mila bederatzihun eta berrogeita sei euro eta hirurogeita zortzi zentimo (86.956,78 €) egiten dutenak; eta 2.570 m³ egur-zatiak dira, 15,00 €an/ m³, hogeita hemezortzi mila bostehun eta berrogeita hamar euro eta hogeita lau zentimo (38.550 24 €) egiten dutenak..

Loteak, guztira, 126.601,20 € (ehun eta hogeita sei mila, seiehun eta bat euro eta hogeitazentimo) egiten ditu.

- 3 /2020 Lotea - Alderdia: TXUTXURIETA. Bakandu selektiboa. Kokapena: S1º-B IV, b3

1.405 pinu gorri oin ditu, 1.424 m³ egiten dutenak; horietako 1.211 m³ zur dira, metro kubikoko 40,00 €an, berrogeita zortzi mila lauhun eta hogeita hamaika euro eta hirurogeita hamabi zentimo (48.431,72 €), egiten dutenak; eta 214 m³ egur-zatiak dira, 5,00 €an/ m³, mila eta hirurogeita zortzi euro eta hogeita hamabost zentimo (1.068,35 €) egiten dutenak..

Loteak, guztira, 49.500,06 € (berrogeita bederatzimila bostehun euro eta seiezentimo) egiten ditu.

Eskaintzak 2020ko azaroaren 30eko 12:00ak arte aurkeztu ahal izanen dira, Aezkoako Batzarre Nagusiaren Erregistroan, baldintza administratiboan pleguan adierazitako dokumentazioarekin batera. Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekiko dira abenduaren 10ean, 12:00etan, Aezkoako Etxeko Bilkura Aretoan (Aribe). Nafarroako Gobernuak ezarritako baldintza teknikoak eta enkantea arautuko duten eta orain aztertu, onetsi eta akta honi erantsita gelditu diren baldintza ekonomiko-administratiboak Batzarre Nagusiko idazkaritzan ikusgai daude, interesatuen eskura.

LAUGARRENA.- BATZARRE NAGUSIKO LANGILE BATEK ESKATUTAKO ESZEDENTZIA.

Batzordeko administrari laguntzaileak, Indaburu andreak, aurkeztutako idatzia irakurri da. Bertan, Batzarre Nagusiari borondatezko eszedentzia eskatu dio, eta, halaber, urte guztietan Batzarre Nagusirak erakutsi dion maitasuna eta pazientzia eskertu dizkio.

Aurkeztutako eskaria ikusirik, Administrazioako lan-kontratuko langileen hitzarmenean (Nafarroako Gobernuaren 2007ko urtarrilaren 15eko Erabakia, lan-kontratuko langileen hitzarmen kolektiboa onartzen duena) xedatutakoarekin bat etorriz, Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurak onartu du eskatutako eszedentzia ematea Indaburu langileari, honako baldintza hauekin:

- Langilearen interes partikularragatiko borondatezko eszedentzia ematen da, eta jatorrizko lanpostua gordetzen da 2020an lan egindako denborari dagozkion oporrak amaitzen diren azaroaren 25etik kontatzen hasita hemezortzi hilabetetan.

- Eszedentzia mugagabea izanen da beti.

- Langileak, behar bezala justifikatutako premiaren kasuan izan ezik, ezin izanen du jarduneko zerbitzura itzultzea eskatu egoera horretan urtebete egin arte. Lanera itzultzea erabaki ondoren, hilabeteko epean egin beharko da. Horrela egiten ez badu, langile izateari utziko dio.

- Langileak eskuratutako taldeari eta antzinatasunari eutsiko die, baina ez du eskubide ekonomikorik sortuko, eta egoera horretan emandako denbora ez zaio inola ere zenbatuko.

Era berean, eszedentziak hutsik utzitako lanpostua behin-behinean betetzeko plaza baterako deialdia egitea erabaki du Batzarre Nagusiak. Baldintzak egiten direnean, plazarako deialdi finkoa egiteko oinarri gisa erabili ziren betekizunak jasoko dira baldintza horietan, eta Osoko Bilkuran aurkeztuko da, onar dezan.

BOSGARRENA.- LANGILE BATEK EGINDAKO ESKAERA, LANGILE FINKO-ETENDUNA DELA DEKLARATZEKO.

IRATIko Zaintza eta Informazio Zerbitzuko Agorreta jaunak aurkeztutako idatzia irakurri da. Idazki horretan, Aezkoako Batzarre Nagusiaren aurkako eskubide erreklamazioaren aurretiko erreklamazioa egin du.

Bertan azaldu du, besteak beste, zein alditan lan egin duen Iratiko zaintza eta informazio zerbitzuan. Batzarre Nagusiak lan harremana mugagabea dela aitortu behar duela uste du, ez baita urtarokako lana, baizik eta izaera iraunkorra eta beharrezkoa duen lanpostu bat. Horren harira, adierazi du lan arloko auzitegiek iritzia eman dutela auzi-jartzailearen egoera berean zeuden Aezkoako Batzarre Nagusiko beste langile batzuen kasuetan. Hori guztia dela eta, Batzarre Nagusiari eskatu dio, eskubideen erreklamazioa egin aurretik eskari hau aurkeztuz, aldizkako langile finkoa dela aitor diezaiola.

2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legeak, 2019ko eta 2020ko ekitaldietarako luzatuta, honako hau ezartzen du hogeita hamalagarren xedapen gehigarrian:

Administrazio publiko bakoitzean eta sektore publiko instrumentala osatzen duten erakundeetan langileen arloan eskumena duten organoak arduratuko dira aipatutako araudia betetzeaz, eta, bereziki, aldi baterako lan-kontratazioan inolako irregulartasunik gerta ez dadin arduratuko dira, aldi baterako kontratu mugagabe ez-finko bihur badaiteke. Era berean, aipatutako langileen organoek ezin izanen diete mugagabe ez-finkoaren izaera esleitu aldi baterako lan-kontratua duten langileei, ez eta aldi berean dagokion administrazioarekin administrazio kontratua duten enpresetako langileei ere, ebazpen judizial baten ondorioz ez bada.

Hiru. Arlo honetako jarduera irregularrek erantzukizunak eskatuko dizkiete bigarren paragrafoan aipatutako organoetako titularrei, administrazio publiko bakoitzean indarrean dagoen araudiaren arabera.

Azaldutakoagatik, gaur egun, araudi hau indarrean sartu ondoren, Batzarre Nagusiak ezin du mugagabe ez-finkoaren eta, inola ere, aldizkako finkoaren izaera egotzi; eta, beraz, erreklamatzaileri jakinarazten zaio, egoki iritziz gero, lan-arloko erreklamazioa egin beharko duela Nafarroako Justizia Auzitegiko Lan Arloko Salan, urriaren 10eko 36/2011 Legeak eta gaiarekin lotutako gainerako arautegietan ezarritako epe eta baldintzetan.

SEIGARRENA.- “UDALAK, EMAKUMEEKIKO BORTIZKERIAREN AURKA” KANPAINA

Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioak adierazpen bat helarazi die emakumeenganako indarkeriaren aurkako kanpainan parte hartu eta harekin bat egin nahi duten toki-erakunde guztiei:

“Azaroaren 25ero bezala, gure hiri eta herrietako kaleak aldarrikapenez bete dira beste behin emakumeen aurkako indarkeria salatzen. Indarkeria hori giza eskubideen urraketa bat dela erreklamatzeko dugu berriz ere, bai eta gure gizartean diren botere- eta desparekotasun- harremanek eutsitako sistema patriarkalaren adierazpenik krudelena ere. Harreman horiek, hain zuzen, eragozten diete emakumeei bizitza duin eta autonomoa izatea, askatasunean.

Azken urteetan aurrerapauso ugari eman dira emakumeen aurkako indarkeria ikusarazi eta haren konplexutasuna identifikatzeko lanean. Nabarmenezkoa da hainbat esparrutan egindako lana indarkeria matxistaren adierazpen ezberdinak kontzeptualizatu, izendatu eta identifikatzeko. Mugimendu feministaren mobilizazioak eta erantzun kolektiboa erantsi zaizkio horri, planeta osoko milaka emakume batu baitira indarkeria horren iraunkortasunaren aurka ahotsa goratu eta haren eragina jasaten duten emakumeekiko elkartasuna erakusteko.

Denbora honetan zehar egindako lan guztia gorabehera, oraindik ere bide luzea dugu berdintasunezko gizarte bat, emakumeen aurkako indarkeriarik gabea, erdietsi arte. COVID-19aren pandemiaren ondorioz bizitzea egokitu zaigun osasun-krisiak agerian utzi ditu oraindik ere bere horretan dirauten desberdinkeriak. Krisiek ez dute berekin ekartzen desberdinkeriak gutxitzea edo desagertzea, kontrakoa baizik. Konfinamenduak herritarrak hilabete batzuek etxean isolatuta egotera behartu zituen, eta horrek emakume ugariaren zaugarritasun-egoera handiagotu zuen eta tratu txarren emaleekin batera bizitzera behartu zituen. Testuinguru horretan, hainbat arlotatik herritarren ardura eta laguntza eskatu dira denbora horretan indarkeria matxistaren biktima ziren emakumeen egoera zailari erantzuna emateko. Zentzu horretan, nabarmendu nahi dugu emakumeen kontrako indarkeria erroten ateratzeko gizarte osoa inplikatzeko duen garrantzia, eta azpimarratu konpromiso horrek osasun-larrialdetik haratago doan errealitate bat izaten jarraitu behar duela.

Azken hilabeteotan eta konfinamendua amaitu ondoren, oraindik ere jarraitzen dugu ikusten hedabideek segitzen dutela indarkeria pairatzen duten emakumeak berriz biktimizatzen eta haietaz irudi pasiboa helarazten, subjektu pasiboak bailira, baliabide eskasekin bizi duten egoerari aurre egiteko. Indarkeriari lotutako bakardadearen eta isolamenduaren ideia helarazi zaio inajinario kolektiboari, baita tratu txarren egoeratik ateratzeko beste pertsona batzuen esku-hartzea beharrezkoa dela ere. Hori baliagarria izan badaiteke ere nahitaezko itxialdi egoera berezietan, bizirik ateratzen diren emakumeen errealitateak ez du batere zerikusirik egunero indarkeria-egoerei aurre egiten dieten emakumei buruz zabaltzen den irudiarekin. Begirada paternalista eta errukior horren aurrean eskatzen dugu indarkeria jasaten duten emakumeak erabakitzeko eta jarduteko gaitasuna duten subjektu gisa aurkezteko, aktiboak bizitzea egokitu zaizkien egoeren aurrean. Salatu eta nahikoa dela esateko ahalduz diren emakume gisa aurkezteko, eraldaketarako dituzten mekanismo eta gaitasunak abiatuta indarkeriarik gabeko bizitza baterantz jotzeko: biktima izatetik bizirik ateratzera eta bizirik ateratzen diren errealitatea eraldatzera. Hori guztia milaka emakumeren urtetako borroka eta aldarrikapenak emandako bultzadarekin indarkeria matxista errotik ateratzeko eta hura pairatzen duten emakumei denon babesa agertzeko. Zalantzarik gabe, milaka lagunek munduko toki guztietan barna aldarrikatutako “ez zaude bakarrik” eta “nik sinesten dizut” mezuak bultzada kolektibo bihurtu dira emakumeen aurkako indarkeriaren kontra.

Zentzu horretan, beharrezkoa da berdintasunerantz aurrera egiten eta maskulinitate eta feminitate eredu tradizionalak deseraikitzen jarraitzea, eta maitasun erromantikoaren mitoa baztertzea -menperatzean eta mendekotasunean oinarritzen baita-, indarkeria matxistari buru emateko.

Gogorarazi nahi dugu, halaber, Administrazio Publikoek, bereziki Tokiko Entitateek, gauzatutako politiken eta ekintzen garrantzia sentsibilizazioaren arloan, indarkeriaren prebentzioan eta bizirik atera diren emakumei arreta osoa ematen, betiere ahalduz esku-hartzearen jomuga hartuta. Azken urteotan baliabide eta zerbitzu asko garatu dira indarkeria matxistari eta horren ondorioei aurre egiteko. Zentzu horretan, nabarmendu nahi dugu garrantzia handia duela zerbitzuak eta haien arteko koordinazioa hobetzen jarraitzeak, emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen desberdinei erantzun egokiak emateko.

Horregatik guztiarengatik Tokiko Entitateek honako hau ADIERAZTEN DUGU:

- Gure arbuioa emakumeen aurkako indarkeria-mota ororekiko, edozein arlo eta testuingurutan.
- Gure konpromisoa instituzio publiko gisa zaurgarritasun-egoerak eta emakumeen aurkako indarkeria eragiten dituen desberdinkeria oro deuseztatzeko lanean jarraitzeko, hala Administrazio Publikoen nola gizarte zibilaren konpromisoa sustatuz.
- Gure elkartasuna erasotuak izan diren emakumeekin eta egunero indarkeria matxistari aurre egiten dieten emakume eta neskekin.

Amaitzeko, herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu jarrai dezaten emakumeen kontrako indarkeria deuseztatzeko konpromisoa adierazten, baita desberdinkeria mota guztiak eta emakumeei haien askatasuna eta autonomia erabiltzea eragozten dieten muga eta baldintza guztiak salatzen ere, eta animatu nahi ditugu azaroaren 25ean antolatzen diren jarduera guztietan parte hartzera.”

Osoko Bilkurak emakumeekiko bortizkeriaren aurkako adierazpena osoki eta aho batez onetsi du.

ZAPIGARRENA.- HAINBAT

- Batzarreburuaren Ebazpena

Batzarreburuak kreditu-lerro bat hitzartzeari buruz eman duen 8/2020 Ebazpenaren edukiaren berri eman du:

Kontu-hartzailtzak jakinarazi du 2020ko aurrekontua gauzatzeko aurreikusitako ordainketei aurre egiteko likidezirik ez dagoela, eta ebazpen honetan adierazitako epean Batzarre Nagusi honek kobratzeke dituen diru-kopuruei buruzko txostena ikusi da. Gaur egun indarrean dagoen 2/1995 Foru Legearen, martxoaren 10ekoa, Toki Ogasunak arautzen dituen, 128. eta 129. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Aezkoako Batzarre Nagusiburuak iraungitze laburreko kredituak eskatu ahal ditu, baldin eta eskatutakoaren zenbatekoa ez bada itxitako azken ekitaldi ekonomikoko gastu arrunten %15a baino handiagoa. 2019ko diru-sarreraren aurrekontuko 1. kapitulutik 5.era bitarteko eragiketa arruntengatik aitortutako sarrerak 521.856,14 € dira guztira. Beraz, horrelako beste eragiketarik egon ezean, presidentearen ebazpen bidez hitzartu ahal izanen den epe laburreko gehieneko zenbatekoa 78.278,40 eurokoa izanen da. Kontu-hartzailtzaren aldeko txostena dago kreditu-kontua irekitzeko, eta zenbait banku erakunderi eskaintzak eskatu zaizkie aipatutako kreditu kontua hitzartzeko, eta guztiek finantza zuhurtasunaren printzipioa betetzen dute. Honako hau ebatzi da:

1.- La Caixarekin kreditu-kontuaren lerro bat hitzartzea, gehienez ere hirurogeita hamabost mila eurokoa (75.000,00 €) eta 6 hilabeteko iraupenekoa, sinatzen denetik zenbatzen hasita, erakunde honek eskaintako eta espedientean agertzen diren baldintzekin.

2.- Ebazpen honen berri ematea Aezkoako Batzarre Nagusiaren osoko bilkurari, egiten den hurrengo bilkuran.

Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.

- Informazio eta Zaintza Zerbitzua

Jakinarazi da azaroaren 10ean amaitzen dela Iratiko informazio zerbitzurako udako kontratazioa. Egindako egutegian aurreikusi bezala, zerbitzua azaroaren 14-15 eta 21-22ko asteburuetan mantenduko da, eta baita azaroaren 28tik abenduaren 9ra arte ere. Hiru zaintzaile arituko dira. Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

- Txabolaren egokitzea.

2010ean, Batzarre Nagusiak artzainek erabiltzen ez dituzten txabolak Aezkoako bizilagunek berreskuratzeko eta mantentzeko kontratuak bultzatu zituen. Horien bidez, txabolak hamar urtean erabiltzeko eskubidea ematen da, beti ere erabiltzaileak epe horretan hobekuntzak egiten baditu eta horiek Batzarre Nagusian egiaztatzen baditu. Aurten kontratuen berrikuspena egin behar zen, baina, egoera ikusita, hurrengo ekitaldira atzeratu da. Orain, esleipendunetako batek eskaria egin du: kanpoaldea zur naturalez edo zuriz margotzeko baimena eskatu du. Osoko Bilkurak uste du oso egokia litzatekeela txabola horietako batean oholezko teilatua edukitzea eta aurrerantzean aztertzeko gaia dela. Hala ere, eskumena Orbaizetako Udalarena denez, erabaki da eskaera udalari helaraztea, herriko hirigintza arloko arauak proposatutakoa egiterik dagoen jakiteko.

- Jauregiko aseguru

Adierazi da Jauregiko instalazio elektrikoa eta erakusketaren muntaia bukatu direla, eta, orain, beharrezkoa dela aseguru bat kontratatzea, eraikinaren edukiaren eta edukitzailearen estaldura bermatzeko. Osoko Bilkurak erabaki du hiru aurrekontu eskatzea beste hainbeste konpainiari, eta behin horiek baloratuta, dagokion poliza kontratatzea.

- Pirinioetako Mahaia

Presidente jaunak jakinarazi du Pirinioetako Mahaiaren lan dinamikari berriro heldu zaiola eta pertsona gehiago apuntatu direla lantaldeetan. Gaur egun, ekintzak garatzeko lau arlo daude: Turismo jasangarria, hurbileko merkataritza eta zerbitzuak; abeltzaintza, nekazaritza eta baso-zerbitzuak; etxebizitza, garraioa eta azpiegiturak; eta industria, enplegua eta lurraldegarapen jasangarria. Lau pertsonak osatutako taldea sortu zen, Gu Pirinioa deitutakoa, Cederna-Garalurrek eta Lursarea agentziak kontratatu duena, eta Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiak (Pirinioetako ekintza-planaren dinamizazioaren buru da) bi erakunde horiekin sinatutako lankidetzahitzarmenen bidez finantzatu duena. Bulego bat dute Aezkoako Etxean eta beste bulego bat Erronkarin (Burgi). Intiak ere parte hartu du Mahaian, Gu Pirinioarekin lan puntual batzuk egiten.

- Turismo Plana.

Gaur egun, Deloitte enpresa Nafarroako Turismoko Zuzendaritza Nagusiari laguntzen ari zaio, Nafarroako Turismo Planeko espazio turistikoko kudeatzeko unitateak (UGET) zehazten eta mugatzen. Bi espaziotan hasi dira lanean, Irati eta Bardeetan hain zuzen ere. Bilera telematiko bat egin zuten bi guneetako ordezkariak, Deloitte enpresak, eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko Zuzendaritza Nagusiak, Marketin Turistikoko Zerbitzuko teknikari batek eta Plangintza eta Berrikuntza Turistikoko Zerbitzuko zuzendariak. Oraingoan, egin beharreko lanari buruzko asmoen adierazpen bat baino ez da. Luze joanen den prozesua da abiatutakoa, eta hasteko, bi espazio horien beharrei buruz galdetu da: hobetzeko azpiegiturak, turismoaren

antolatzea eta laguntzak. Asmoa da zona horien arloan lan egiten dutenekin kontaktuan egotea, nahi dituzten ekarpenak egin ditzaten.

ZORTZIGARRENA.- GALDERAK ETA ESKEAK

Ez da galde-eskerik egin.

Eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, bilkura bukatutzat eman da goian adierazitako eguneko gauekoa hamarrak eta hamar minutuak zirela. Errandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta nik, idazkariak, Egiaztatzen dut.